



## Gaur sinatuko da Gizarte Ekimeneko izeneko ikastetxeetako 2008 eta 2009 urtetarako hitzarmena

Gaur, maiatzak 29an, gizarte ekimeneko ikastetxeetako hitzarmenerako aurre-akordioa sinatu dute Patronalek (*Kristau Eskolak* eta *AICE*) eta ELAk.

Modu laburrean, hitzarmen honetan jasotzen diren aldaketak honako hauek dira:

- Lansariari dagokionez, eta beti 2008 eta 2009 urteetarako igoerak:
  - Irakasleak: % 8,37
  - 0-3 zikloko teknikariak eta laguntzaileak: % 12,72.
  - Irakasleak ez direnak: % 11,20
  
- Horretaz aparte bi osagarriak ezartzen dira, (2009rako bakarrik) :
  - Tutoretzako osagarria: Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoan urteko 770, 94 €.
  - Dedikazio osagarria:
    - Lehen eta Haur Hezkuntzako 1. eta 2. ziklokoan: 155,67 €
    - DBH1: 165,16 €
    - DBH2 eta Batxilergoan: 180,93 €
    - Lanbide Heziketan: 72,37 €Urtekoak izango dira eta 14 pagatan kobratzekoak.
  
- Irakasleak ez diren langileen ordainsaria parekatzea % 95ean publikoari dagokionez, gehienez 3 urtetan.
  
- Ikastetxeak langileek IRALEko kurtsoetan parte hartzeko behar diren baimenak emateko derrigortuak egongo dira.

**STEE-EILASek hitzarmen hau ez sinatzea** erabaki du sindikatuan dituen ordezkari sindikaleko asanblada egin ondoren. Datorren astean izango duzue erabaki hori argitzen duen agiria.

---

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>

---